# EDITORIAL

## Salbamendu eta erreskateei buruz

*ESANGO didazu oraingoa ez dela istripu larri asko izaten deneko sasoia. Badaezpada kontu izan eta presta dezagun arretaz etorkizuna. Batez ere negua etorri eta jendea Pirineo eta Europako Haitzetara joaten hasten denerako.*

*Ba dakit jakin hemen ez dela izaten istripu zaratatsurik. Gehien errepikatzen direnak, eguraldi txarra suertatzen denean gertatzen diren galtzeak izaten dira, eta hauek ere amaiera mingotsa izaten dute batzutan. Eta maiz erreskate taldeen arteko nahaste izugarrien esperientzia irrigarria jazoten da, denek arduratu nahi bait dute biktima etxera eramateaz.*

*Esan beharrik ez dago gu alpinistok ez garela, Goi-Mendiak egiterakoan, walkytalky bat motxilan eramateko besteko maila zibilizatuan (guk, joan diren Gabonetan, hain hurrean bizi izan genuen istripu hartan, Contraig-eko aldapetan, ikusi genuen bezala). Normalena ekipamendu lardaskeroa izaten da (urtarrilaren 4. hartan hain gaizki ekipaturik zegoen Parkeko aterpea lekuko). Hala ere, zorionez, leku batzutan ba daude ongi funtzionatzen duten erreskate-taldeak (Viellako suhiltzaileen helikopteroarena bezalakoa, zeinaren partehartzeaz dohatsuki amaitu bait zen Val D'Araneko episodio hura).*

*Ba dirudi erreskateen gaia Euskadin behin betiko konponbidean edo dugula. Sorospena mendian profesionaltzen ari da. Ertzantza arduratu egiten da, Federakuntzaren laguntzaz. Agian, lehen urratsak izan daitezke bide onetik. Irakur ezazue barrualdeko orrialdeetan Jaurlaritzarko Barne-Sailaren eta Euskal Mendigoizaleen Federakuntzaren arteko ituna.*

## De salvamentos y rescates

ME dirás que ahora no es época de frecuencia de accidentes graves. Por si acaso toca madera y vamos preparando con cuidado el futuro. Sobre todo para cuando llegue el invierno y la gente salga a Pirineos y Picos.

Ya sé que aquí no suele haber ocasión de rescates aparatosos. Los que más se repiten suelen ser pérdidas en días de mal tiempo, aunque también algunas veces tienen un final amargo. Y lo que se prodiga en muchos casos es una ridícula experiencia de grandes cristos entre los equipos de rescate porque todos quieren ser los que se llevan la víctima a casa.

Desde luego que no estamos al nivel civilizado de que los alpinistas en Alta Montaña lleven un walkytalky en la mochila (como nos encontramos estas Navidades en las palas del Contraig en aquel accidente que vivimos de tan cerca). Más bien lo normal es un equipamiento chapucero (como lo mal equipado que estaba el refugio del Parque aquel 4 de enero). Aunque por suerte en algunos sitios hay equipos de rescate que funcionan (como el del helicóptero de los bomberos de Viella, con cuya intervención terminó felizmente aquel episodio de la Val d'Aran).

Parece ser que el tema de rescates en Euskadi está en vías de solución definitiva. El socorro en montaña se profesionaliza. La Ertzantza se encarga, con la colaboración de la Federación. Parece que son los primeros pasos por el buen camino. Leed en las páginas interiores el Convenio entre el Departamento de Interior del Gobierno y la Federación Vasca de Montaña.